

## ALKATEAREN ERABAKIA

**GAIA:** Gorosarri dt - 60. urteurreneko ekintzak

**ESPEDIENTEA:** 2026EDI20002

**INTERESDUNA:** GOROSARRI DANTZA TALDEA (IFK: G20478905)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 4.300 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du GOROSARRI DANTZA TALDEA-ren alde, 2026. urtean ospatuko duen 60. Urteurrenean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Euskara teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako fiskalizazio txosten ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6. artikulua emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

### ERABAKI DUT

**LEHENENEGOA.-** Udalaren eta GOROSARRI DANTZA TALDEA-ren (IFK: G20478905) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

**BIGARRENA.-** GOROSARRI DANTZA TALDEA-ri 4.300 euroko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoa antolatzeko: 2026. urtean elkartearen 60. urteurrena ospatzeko ekitaldia.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenaren 6. klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60a ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

**LAUGARRENA.-** 4.300 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.481.335.50.01 partidari egozte.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026EDI20002-Alkate erabakia/Resolución (GOROSARRI DANTZA TALDEA)